# Abenturez gozatzen

*Hamaika ekintza eta irteera egin dituzte Txokoetako haurrek*



Txintxarri 2018/07/14 9:00

A+ A-

Irteerak, tailerrak, ur-jolasak, ekintza bereziak,... Ttakun Kultur Elkarteko Txokoetako haur eta gaztetxoen jarduerek ez dute etenik. Egunero abentura berri bat da.

Izeba Lili, izeko Mari, aitatxi Manolo, osaba Antxon... Txokoetako familia bereziek ipuinak kontatu dizkiete, eta gaileta gozoak edo esperimentuak nola egin erakutsi. Zezenen aurrean ere lasterka egin dute, San Fermin bezperan. Eta Txikiguayen puzgarriez eta laberintoaz gozatu dute. Gainera, belaunaldien arteko loturak sendotzeko, Atsobakarreko zahar egoitzeko lagunekin eskulanak egin, dantzatu eta jolastu dute. Ederki gozatu dute guztiek, zahar zein gazteek.

HH5 eta LH2 arteko gaztetxoek Aterpea elkarteko dendetara bisitak egin dituzte aste honetan. Jostakirola ekintzaren barruan, ohikoak ez diren kirolak ezagutu dituzte, hala nola, hockeya, akrosport eta kirol egokituak. Honez gain, Urnietako igerilekura eta Astigarragako Sagardo etxera bisitan joan dira.
Zaharrenak batetik bestera dabiltza. Txirringa irteera, Gamarrako igerilekuak eta Getaria Zarautz arteko txangoa egin dituzte. Gainera, herriko auzo elkarteekin lanean misio ezberdinak bete behar izan dituzte. Lehengo astean, esate baterako, Zabaleta auzoko lagunekin altxorraren bila ibili ziren.

Baina oraindik bi aste geratzen dira, eta beste hamaika ekintza egiteko dituzte. Txikiek Txokoetako familia bereziaren ikuskizuna izango dute, eta flashmob bat grabatuko dute. Ertainek ere ez dute aspertzeko astirik izango: dantza, antzerkia, igeriketa saioak, Usurbil eta Zubietara irteerak... Zaharrenek, berriz, sukaldaritza saio bereziak egingo dituzte, herriko gastronomia elkarteen laguntzari esker. Horrez gain, gazteen I. Zinema Lehiaketarako filmak egin, eta bibak irteera ere izango dute.

Atsegin dut 13 Tweet

## ARGAZKIAK










0 Iruzkin  Txintxarri aldizkaria  1 Saioa hasi

Gomendatu  Tweet  Partekatu  Onenetik hasita

Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN ?

Izena

Egin lehen iruzkina.

Harpidetu  Gehitu Disqus zure webgunera  Disqus' Privacy Policy  DISQUS



## OHARRAK

Xumela koruko entseguak

Udaleku eta Txokoetako arropa galdua

Tabernei deialdia Euskal Jaietan

Katekesi saioak hastear

Alboka Abesbatzaren entseguak

## AGENDA (Gaur)

Lasarte-Oria

19:00
Jaiak
Semblante Andaluz Elkartean






## ZORION AGURRAK

ANE



Zorionak Ane!! Egun polita pasa zure 9. urtebetetzean!!! Familia guztiaren partetik!!

## AZKEN PDFa



txintxarri

Sudur gorriak, mundua iraultzeko

Lasarte-Oriako adineko pertsonak haien omenezko asteko egitarauaz gozatzen ari dira

Alerpea merkataritza elkarteko Bezeroaren Hamabostaldian 1.300 euro banatuko dituzte erosketa-bonuetan

Udalak San Marko mankomunitateari egotzi dizkio hondakinen bilketan izan diren arazoak

Oscar Alegre judoka funtzio aniztasuna duten pertsonen Special Olympics jokoetan lehian da

Eguzki Areto Futboleko taldeak, aldaketekin baina helburu handiekin, ligari ekiteko prest

Harremanak sendotzen

ARREGUI

Etxeko detaile txikientzako diseinu zainduenak

LED sabai-lanpara berriak!

mantra

LARRE JATETXEA

1436 ( Urriak 5 )

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**De Miguel ( Asteartea)**

Kale Nagusia 32

Tel: 943 371151

ASTEA

txintxarri
publizitate tarifak
2018

gurean.eus




**La Viña Berria tabernan lapurtu dute bart, eta beste hiru establezimendutan egin dute saiakera**

azoka-salerosketak
iragarkilaburrak.com







CC BY SA

txintxarri@txintxarri.eus
txintxarri@ttakun.eus
Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria 20160 Gipuzkoa
943 37 14 48

ARGITARATZAILEA BABESLEA LAGUNTZAILEAK

Kultur Elkartea
LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO